



ARDI INDARTSUA

Materiala: Ez da ezer berezirik behar.

Jokatzeko era:

- ☞ Jokalari guztiak borobilean eserita.
- ☞ Jokalari bat aukeratu eta gelatik kanpora atera. Bitartean besteei jolasa azaldu.
- ☞ Talde osoa artaldea izango da eta kanporatua artzaina.
- ☞ Artzaina gelan sartuta, artaldeko ardi bat besteak baino indartsuagoa dela esango zaio artzainari eta hiru aukera dituela zein den asmatzeko.
- ☞ Denen artean 1, 2, 3 kontatu eta ardi guztiek "beeee" oihukatuko dute.
- ☞ Lehenengo eta bigarrenengo aukeretan ez duela asmatu esango zaio.
- ☞ Hirugarrenean, berriz, edonoren izena esanda ere, asmatu duela esango zaio.
- ☞ Jolasa berriro egingo dela esan eta jolasean jarraituko dugu.
- ☞ Ikasle bat (hirugarren aukeran esandakoa) kanpora bidali.
- ☞ Lehen artzaina izan denari esango zaio "ardi indartsua" bera izango dela.
- ☞ Artzain berria sartuta, bere lehen bi aukeretan denek "beeee" egingo dute. Hirugarren aukeran, berriz, denak isildu eta "ardi indartsua"-ri bakarrik entzungo zaio "beee", eta barregarri geratuko da.

